



BALIABIDEAK

Ondorengo funtsezko baliabideak hartu behar dira kontuan enpresa-proiektu bat garatzeko:

Externalizazioa

Funtsezko baliabide bat kanpoko enpresak batek gara dezake kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko. Adibidez, telefonia mugikorrek enpresak espezializatutako enpresen esku uzten dute telefonoen fabrikazioa.

Kostuak murriztea

Funtsezko baliabideek enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea. Batzuetan, merkaturak hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen digute.

Hobetzeko aukera

Produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasuna.

Iraunkortasuna

Enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio.

Ordezteko aukera

Funtsezko baliabideak proiektu baten funtsa dira; beraz, ezin izan beharko lukete ordeztuak izan.

Gure enpresa sortzerakoan enpresak behar dituen baliabideak zehaztea garrantzitsua da, horretarako, lau kategoria desberdin bereiztuko ditugu:

Finantza-baliabideak

Enpresak behar duen dirua da. Izango dituen gastuak ordaintzeko. Horretarako, gure aurrezkiak erabiliko ditugu hasieran.

Baliabide fisikoak

Bakoitza bere etxean lan egingo du, hala ere, grabazioetarako ez dugu leku finkorik izango; izan ere, lokalizazioa produkzio bakoitzera moldatuko dugu, gure produktua errealismoa bilatzen baitu.

Materialei dagokionez, bakoitzak ordenagailu bat beharko dugu proiektuen aurreproduktzioa eta postproduktzioa gauzatzeko. Horrez gain, ikusentzuzko produkzioetarako hainbat baliabide tekniko beharko ditugu; esate baterako, kamerak, fokoak, mikrofonoak, euskarriak, reflektoreak...

Azkenik, marketing sailean bestelako material batzuk erabiliko ditugu.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak

Ionen lidergoa, Nahiak duen komunikatzeko gaitasuna, Anek duen sormena eta diseinatze gaitasuna, Juneren motibazioa eta Garazik daukan talde lanerako gaitasuna.